GOBERNU BATZARRA

2017. 01. 30

Alkatea:

Olatz Peón Ormazabal

Zinegotziak:

Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Kontuhartzailetza:

Ainhoa Molinos Zubiaurre

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko urtarrilaren hogeita hamarrean, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.-Kondeaneko Aldapa 11-N Babes Ofizialeko 11 etxebizitza gauzatzeko obren 5. ziurtagiria (5/16 faktura).

3.-Tolosako Bizikidetza Foroaren 2016ko dirulaguntza ordaintzeko proposamena.

4.-Iñauterietan 12 trafiko laguntzaile kontratatzeko proposamena.

5.-46/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko urtarrilaren 23an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Kondeaneko Aldapa 11-N Babes Ofizialeko 11 etxebizitza gauzatzeko obren 5. ziurtagiria (5/16 faktura).

Tolosako Udalak Kondeaneko Aldapa UTE-ri esleitu zion “Kondeaneko Aldapako 11-15.3 azpiesparruan Babes Ofizialeko 11 etxebizitza” egiteko obren kontratua, eta 732.842,40€ izan zen esleipenaren zenbatekoa.

Ziurtagiri zenbakia……..Faktura zenbakia…… Zenbatekoa

1. ziurtagiria…… 01/16……100.842,98€
2. ziurtagiria..... 02/16.....76.294,90€
3. ziurtagiria..... 03/16 ….....92.610,55€

4. ziurtagiria…….. 04/16…….. 76.564,24€

GUZTIRA…….346.312,67€

Orain aurkezturiko ziurtagiria, obrako bigarrena, honakoa da:

5. ziurtagiria…… 05/16…… 132.892,17€

Ziurtagiria ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Onartzea "Kondeaneko Aldapako 11-15.n Babes Ofizialeko 11 etxebizitza" egiteko obren 5. ziurtagiria, 132.892,17**€**koa.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea adjudikaziodunari, Kondeaneko Aldapa UTE-ri eta Kontuhartzailetzari.

3.- Tolosako Bizikidetza Foroaren 2016ko dirulaguntza ordaintzeko proposamena.

Tolosako Bizikidetza Foroak, 2016. urterako, 3.530,78 euroko dirulaguntza eskaera luzatu zion udalari, aurtengo apirilaren 28an. Eskaeran bertan, aurkeztutako aurrekontuaren oinarrituta, %50eko aurrerapen bat eskatzen zuten, urtean zehar sortuko ziren gastuei aurre egin ahal izateko.

Eskaera aztertu eta gero, kontuan izanik Bizikidetza Foroak Tolosan egiten ari den lana bizikidetza alorrean onuragarria dela, 2016ko azaroren 14an Gobernu Batzarrak 3.530,78 euroko dirulaguntza ematea eta, sortutako gatuei aurre egin ahal izateko, kopuruaren %50ª ordaintzea erabaki zuen (1.765,39€).

Aurtengo urtarrilaren 18an, Tolosako Bizikidetza Foroak dirulaguntza zuritzeko dokumentazioa aurkeztu du. Balantze ekonomikoaren arabera, 2.693,12 euroko gastuak justifikatzen dutenez eta horietatik 1.765,93 jasota daukatenez, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Tolosako Bizikidetza Foroari justifikatu duten 2.693,12€ ordaintzeko falta diren 927,19 euroko dirulaguntza ematea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta Bizikidetza Foroari.

4.- Iñauterietan 12 trafiko laguntzaile kontratatzeko proposamena.

Bi mila eta hamazazpi urterako, Iñauterietaio antolaketarako eta dauden beharren arabera, 12 trafiko laguntzaile kontratatzea, iñauterietako egunetarako (iganditik asteartera), beharrezkotzat jotzen da. Behar hauek Udaltzainburuaren txosten batean isladatu dira non festaren segurtasuna bermatzeko beharrezkoa ikusten duen hiru egun horietarako aipatu giza baliabideak kontratatzea.

Honela, urtero bezala, trafiko laguntzaileak kontratatzeko oinarriak prestatu dira, ondoren publizitatea eman eta hautaketa prozesua bideratzeko.

Hortaz, ikusirik udaltzainburuak egindako beharren txostena eta aplikagarria den legedia, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez balituta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Hamabi trafiko laguntzaile kontratatzea eta deialdia lehentasunezkoa deklaratzea, zerbitzua premiazkoa eta atzeraezina kontsideratzen delako.

BIGARRENA.- Aipatu Trafiko laguntzaileak kontratatzeko (iñauterietako igandetik asteartera) deialdia eta oinarriak onartzea, dagokion publizitatea emanez.

5.- 46/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzailetzak **46/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **437.791,63 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- 46/2016 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailetzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA **IDAZKARIA**